


AHTren aurkako mendi ibilaldia

Hilaren 2an AHTren aurkako mendi ibilaldia egingo da Donostialdea-Bidasoa eskualdean. Bi talde irtengo dira, bata lurrik eta bestea, Hernanitik. 11.00etan helduko da Hernaniko taldea Martutenera.

Mendi ibilaldiaren helburua AHTren proiektuak eskualdeko ingurumenean eta gizarte arloan eragingo lituzkeen kalteak salatzea da, eta jakina, proiektua gelditzea eskatzea. Eskualdeko "AHT Gelditu! Elkarlana" taldeak antolatutako mendi ibilaldia eta esan bezala, bi talde irtengo dira: Bidasoa-Oarsoaldekoa eta Urumea bailarakoa. Bidasoa-Oarsoaldea zutabea Irungo Landetxa



Ibilaldia AHTk kalteak lekuetatik egingo da.

AHTk 7 kilometro egingo ditu Urumea bailaran

auzoko tren geltokitik abiatuko da 09.00etan. Urumea bailarako zutabea, berriz, ordu berean irtengo da Hernaniko Gudarien plazatik. Eguerdian, bi zutabeek bat egingo dute Errenterian (13.00). Ondoren, partehartzaileek herri bazkaria egingo dute Txintzarri elkartearen.

Bailaran barrena

Mendi ibilaldia proiektuak kaltetutako parejeetatik egingo da. Urumea bailarako zutabea Hernani, Ergobia, Astigarraga eta Loiola-Martutenen ibiliko da. AHT Gelditu! Elkarlanak jakinarazitakoaren arabera, AHTk Hernani eta Martutene artean zazpi kilometro egingo ditu Urumea bailaran barrena, eta bost aldiz zeharkatuko du ibaia. Astigarragan izango da AHTren geltoki nagusia. Hori guztia egiteko, Urumea ibaia bi kilometro t'erdiz desbideratu behar da, horrek esan nahi duen guztia-ekin: kutsadura, ingurumenera eragindako kaltea, hondakindegia ugaltzea, zarata akustikoa, kutsadura elektromagnetikoa eta abar. Proiektuak aurrera egin ez gero, gainera, Martuteneko hainbat baserri eraitsiko dira, hala nola, Olatsu, Olatsu Berri, Okendotegi eta Agirretxe.

Martutenen 11.00etan

Bestalde, antolatzaileek ibilbide osoa egin nahi ez duten auzotarrei ekimenean parte hartzeko deialdia luzatu diete. Urumea bailarako zutabea Hernanitik irtengo da (09.00etan). Ergobian 10.00etan ipini da hitzordua zubi ondoan eta 11.00etan Martutene pasealekuan. Martutenetik Oiarzungo Gurutze auzora joko dute partehartzaileek (12.00) eta handik Arraguatik Errenterira. "Ekimenarekin eskualdeko gizarte erantzunari bultzada eman nahi diogu. Proiektuak gizartearen ezezkia jaso du eta borrokaren bideari eutsi nahi diogu", diote taldeko ordezkariak. Badakizu, beraz, proiektuaren aurka bazaude, hitzordua duzu igandean. Ibilbide luzea iruditzen bazaizu, Martutenen gehitu zaitezke ibilaldira. Hurrengo hitzordua Arrasaten izango da abenduaren 15ean.

Gaztelekuak bi urte

Abenduan Martuteneko Gaztelekuak bigarren urtemuga beteko du. Bi helbururekin jaio zen Gaztelekuak: elkarkidetzaren bultzatzea eta gazteentzako beren ekimenak aurrera ateratzeko aukera ematea. Hori dela eta, gazteentzako hainbat ekimen antolatu ohi dira bertan: ikastaroak, zine

emanaldiak, irteerak eta abar. Bestalde, Martuteneko Auzo Elkartearen bertan bildu ohi da. Zorionak eta urte askotarako.

